

2013ko urriaren 31, osteguna

BESTELAKO XEDAPENAK

OSASUN SAILA

4709

AGINDUA, 2013ko urriaren 14koa, Osasuneko sailburuarena, Agiri Klinikoak Balioetsi, Hautatu eta Garbitzeko Batzordearen osaera aldatzeko dena.

Historia klinikoari eta osasun-arloko paziente eta profesionalen dokumentazio klinikoaren arloan dituzten eskubide eta obligazioei buruzko martxoaren 13ko 38/2012 Dekretuak bere 22. artikuluan ezarritakoaren arabera, Agiri Klinikoak Balioetsi, Hautatu eta Garbitzeko Batzordeko (COVSEDOC) kideak izendatu ziren Osasun eta Kontsumoko sailburuaren 2012ko ekainaren 29ko Aginduz.

Batzorde horretako kide den José Ignacio Fraile Estebanek utzi egin behar dio batzordekide izateari, eta, beraz, bere ordezkoa jarri behar da.

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Encarnación San Emeterio Martínez andrea Agiri Klinikoak Balioetsi, Hautatu eta Garbitzeko Batzordeko kide izendatzea, José Ignacio Fraile Estebanen ordezkari (Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Lehen Mailako Arretaren ordezkari).

Bigarrena.– Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean sortuko ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko urriaren 14a.

Osasuneko sailburua,
JON DARPÓN SIERRA.